

Goibekalkale



Elgetako aldizkaria martxoa 66zk.

6 urte goib

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

ZORIONAK

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel. 04 6820568 eta Fax 04 682061

Maya ingurumen taldeak hirigintza eta ingurumen batzordean aurkeztutakoa:

Elgetan ,2001.eko Otsailak 28an
Jaun/Andere agurgarria:

Ondorengo lerroen bidez Maya ingurumen taldeak Zalatu nahi du udaletxeak ingurumenaren aurrean duen ikuspegi bakarra:urbanista.Gure ustez ingurumen batzordeak beste ikuspuntu batzuk ere kontutan izan beharko lituzke: daukagun ondare mantendu eta zaindu: San Roke ostea, errekek, mendiak; hainbat kasutan berreskuratu: basoak,herri bideak; askotan normaltzat jotzen ditugun ohiturak aldatzeko baliabideak ipini: olioaren bilketa.

Gaurko denboratan ezinbestekotzat jotzen dugu, zerbait egiterako orduan adibidez eraikuntza desberdinak, poligono industrialak, errepideak...garrantziskoa dela ingurumenean sor lezakeen kalteak beste ikuspegi batetatik aurreikustea,neurtzea eta araudia jartzea,gure errekek ahalik eta gutxien zikitzeko,basoak babesteko,azken batean kutsadura murrizteko.

Garbi utzi nahi dugu hirigintza eta ingurumen batzorde horretan gu ideiak emateko eta gure iritzia jakinarazteko gaudela, azkenean udaletxea baita proposamen horiek aurrera eramateko ahalmena duen bakarra. Baina zerak kezkatzen gaitu udaletxeak arlo honetan ez duela planifikaziorik ez eta ekintzarik aurkezten. Hau dela eta, zera jakitzea gustatuko litzaiguke: udaletxeak badauka arlo honetan proposamenik epe motzerako, ertain edo eta luzerako?

Hainbatetan aurkeztu izan ditugun proposamenen aurrean hitz politex gain proiektu horiek gauzatuta ikusi nahi ditugu. Denon artean herriaren beharrak hobeto aztertu eta irtenbideak topa baitituzakegu.

MAYA ingurumen taldea

Goiena telebista: arazo teknikoak ala burokratikoak?

Denori gustatuko litzaiguke Goiena telebista Elgetan ikustea, Goibekokaleko aurreko

aleko jentrebistetan ala esan zuen jendeak behintzat. Zergaitik ez dugu ikusten orduan?

Azkenengo hilabeteen zehar irakurri dugu egunkarietan (Goinkarian ere bai) Goienak hitzarmenak sinatu dituela. Alde batetik Goienak hitzarmena egin du bailarako herri guztietako euskara elkarteekin, Elgetako kasuan Goibeko kultura elkartearekin. Honekin elkarre hauek beraiek sortutako komunikabideen; telebista, irrati eta batez ere herri aldizkarien kudeaketa Goienaren esku uzten dute, eta Goiena proiektuari konfidantza guztia adierazten diote.

Bestalde, Aramaion Goienarekin hitzarmena egin zutenak udaletxeak izan ziren. Bailarako gehienak: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga, Antzuola eta Aramaioko udaletxeek beraien babesa ematen diote Goiena proiektuari eta bertako kooperatiban parte hartzeko konprometuz sinatu zuten. Hitzarmenetik kanpo geratu diren herri bakarrak Bergara, Oñati eta Elgeta izan dira. Zergaitik? Elgetan behintzat ez dakigu arrazoia.

Elgetako udalak 2000. urterako aurrekontuan Goienari laguntzeko ipinita zuen dirua ez dio eman hitzarmena ez duelako sinatu. Baina Goienkaria astero jasotzen dugu elgetar guztiok gure etxeetan dohainik. Goiena telebista ere ikustea nahi dugu gure herriko eta bailarako gainontzeko herrietako gauzen berri jakiteko modu erraz eta atsegin bat izan daitekeelako eta gainera euskararen normalkuntzan tresna eraginkorra izango delako. Goienak aurrerantzean egingo dituen proiektuetan ere parte hartu nahi dugu, irradian, multimedia munduko hedabideetan etab...

Badirudi udaletxeak baduela arazoren bat Goienarekin hitzarmena sinatu eta babesa emateko. Herritarrok arazo hori zein den jakitea nahi dugu. Arazo burokratikoak konpondu beharko du lehenengo konpontzea tokatzen zaionak eta gero helduko diegu arazo teknikoiei, baldin badaude.

Elgetako Euskal Herritarrok

Goibekokalek 6 urte

Bateronbategi pentsauko dau errez samar doiala, baiña ez da hola. Sei urtetian ilusiño asko eta hasarre dexente egon dira. Haserriak baiño gehixau ilusiñua galtzen jua dala esango neuke eta gutako asko aldizkari batek eskatzen dittuan ordu guztiak bestelako zeregiñetan jarduteko erabiltzen dittugula esango neuke, Hain da holan ze borondate lan guztien moduan kostosua izatiaz gain errelebu hartzeko ez da jenterik egon eta Goibekokalek oin daukan itxuriakin egunak kontautu dakaz.

Honek zer esan gura dau, Goibekokale desagertu egingo dala? Bai zera. Ezta pentsau be! Goibekokalek jarraituko dau eta ez hillabedian behin, astero eta itxura hobiakin baiño. Horrek berri freskuaguak eukitzia ekarriko dau, eta asterokua izatera landuagua etorriko da. Aldaketia ba, hoherako, garatzeko, aurrera egitteko. Goienkariak Goibekokaleri bestelako indarra emongo dotsa eta irakurliok izango zarie gehixen igarriko dozuena.

Udaletxiari eta orokorrian herrixari iguala kostautu Goienkarixa, astero Goibekokalaren orri bat eta GOITB eukitzeko aukeria zabalduko jaku nahiz eta ondiokan hori aukerriorri udalak baietza emon ez.

Beste 6 urte ez, beste 60 beteko dittugu holako pausak emoten.

Iban Arantzabal Arrieta

ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR




Empresa Registrada

BR-0714/2006

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Saio ustela

Gor gutxi uste izaten dugu gure bizitzan zehar epaituak izango garenik, nolabait ere epaiketa formal baten bidez esan nahi dut. Baina, halabeharrez, eskutitz ezatseginen bat etxera heltzen zaizunean zuri egokitu zaizula konturatzen zara.

Hauxe da, hain zuzen, ere gertatu berri zaidana. Aipatu bezala, eskutitz batekin hasten dena, aspertzeko haina hara eta hona ibiliz osatzen da epaitzeko prestatu arte. Bialtzen dizkituzten eskutitz denak udaletxean, bake epaitegian jaso behar dira paper bat sinanatuta.

Salara sartu eta epaiketarik irten bitartean bi minutu ez ziren pasatuko. Ez nuen neure burua identifikatu beharrik izan (ez N.A.N erakutsi ezta ezer sinatu ere), eta salako guztiok buruz ikasitako hitz jariora ahalik eta azkarren bukatzen genuen norbait zain izango bagenu bezala. Egia esan, ni, antzerkia ahalik eta azkarren bukatu zedin desiratzen nengoen.

Saio benetan ustela!. Paripeak egiten hasita honelakoxeak dira lotsagarriak. Eta ondoren datoz galdera guztiak: zertarako balio du justiziak? Zertarako epaitu? Lehenengo "delincuente" deitu eta gero tramite hutsa den denboragaltze batetan kargurik gabe uzteko? Nik egin nuena telefonoz ere ederki egin zitekeen.

Mesedez! Epaitu bai, baina beharrezkoa denean eta ganoraz. Bestela utzi pakean, zeregin garrantzitsuak baditugu eta.

Iban Retolaza



Foot and mouth

Gaztelera "fiebre aftosa" eta euskaraz sukar aftosoa. Aspaldian ez da beste ezer entzuten Erresuma Batuan. Egunkari guztietako lehen orrialdeak betetzen ditu, albistegietako gai nagusia da eta jende guztiaren ahotan dago. Jadanik sei aste pasa dira lehenengo kasua ezagutzera eman zenetik eta gauzak gero eta okerrago doaz. Dagoeneko 1967ko krisaldian baino bi mila abelburu gehiago hil dituzte. Hori gutxi balitz, astero 1300 miloi pezeta baino gehiago galtzen dira eta egunero turismotik bizi diren 50 pertsona lanpostu gabe gelditzen dira Stonehenge bezalako toki turistikoak isten hasi direlako.

Gobernu ingelesak krisialdi honek hila-bete batzuk gehiago iraungo dituela onartu zuen aurreko astean. Beraien esanetan maiatza aldera kasu kopurua jeisten hasiko da eta abuztu amaierarako desagertua egongo da.

Baina hau ez da Erresuma Batuko politikariek buruan duten gauza bakarra. Han ere Euskal-Herrian bezala hauteskundeak ospatu behar dira maiatzean. Hori da behintzat Tony Blair-ek esaten duena kontserbadoreek udazkenera arte atzeratu nahi dituzten arren. Berak dienez hauteskundeak atzeratuz gero Erresuma Batuentzako irudi kaltegarria zabalduko litzateke bertara gerturatzea pentsatzen dutenen artean eta beraien bezero kanpotarren artean.

Antza denez Blair gehiago kezkatzen da kanpokoek duten iritziak bertakoenaz baino. Cumbriako abeltzain guztiak kexatu arren berak beste aldera begira jarraitzen du arazoari ihes egin nahian. Baina noiz egingo dio aurre? Zenbat pertsona gehiago hil behar dira arazoa uste dutena baino larriago dela ikusteko? Orain Irlanda, Frantzia eta Herbeeretako politikariek zein neurri hartuko dituzten ikusteko zain al dago berak ere berdina hartzeko?


Jone Oianguren

GOJBKOKALE


Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel.: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Ezenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritziaren erantzunkizunik.

 kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*



Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du

Goibeko
k.e.
Tel.: 943 78 90 85
Salbador 2, Kultur Fitxea
goibeko@topagunea.com

Aldizkari honen
argitaratzailea



Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

Kamioia berriro ere. Nor da errudun?

Salbador kaleko lehenengo pisuetako bizilagunek badakite zer diren kamioiek balkoian egiten dituzten estropozoak. Oraingoan salbador 28ko balkoian jo zuen kamioiak. Beti bezala gaizki aparkatua zegoen kotxe bat eta kamioiak kotxea eta paretaren arteko tartetik sartu nahian balkoia jo zuen. Balkoi honek bost bidar jasan du kamioien erasoak. Balkoia konpontzea 40.000 eta 60.000 pta. kostatzen da. Normalean kamioiko seguruak ordaintzen du kaltea, baina behin kamiolaria ez ikusi eta etxeko seguruak ordaindu behar izan zuen.



Kotxea traban eta kamioiak berriro ere balkoia jo zuen

Etxeetako olioia biltzeko kanpaina

Apirilaren 25ean plazan jasoko dute olioia

Maya Ingurumen taldea olioia jasotzearen aldeko kanpaina egiten ari da. Kanpaina honen helburu nagusiak ingurumena babestea eta olioia berziklatzea edo berrerabiltzea dira. Olioaren bilketa apirilaren 25ean izango da herriko plazan 18:00eta-


tik 19:30etara. Ondoren olioien biltzetarako enpresa bat etorriko da olio hau jasotzera. Olioia eraman nahi duenak botila baten jaso dezake plazara eramateko.

Bildutako olio hau hainbat

gauza egiteko erabiltzen da, esaterako, xaboa, betuna, margoa, kosmetika etab. Orain arte abereak elikatzeke ere erabiltzen zen baina gaur egun Eusko Jaurlaritzak debekatua dauka.

Zikoina kanpandorrean

Zikoinak Elgetako zeruan hegaka ikusi duenik badago. Baina martxoak 25ean, kanpandorreko gurutzetako batean geldiunea egin zuen zikoinak. Ordu eta erdi han egon eta gero bere bidea jarraitu zuen. Nora? Batek daki, agian lekua gustatu eta laster izango dugu bueltan, herrian kabia egin eta bertan geratzeko asmoarekin.



Zikoina elizako gurutzean egon zen ordu eta erdi


GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS718
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Bidea jarraituz norabide bila

Gaztetxearen bosgarren urteurrenak jende ugari batu zuen

Eguerditik etxafleroen hotsak, eguna luze joango zela iragarri zuten. Egun berezia izan zen, martxoak 24koa. Batez ere bost urte hauetan Gaztetxean lanean aritu diren gazteentzat. Bazkarian 70 lagun inguru batu ziren. Haizeagatik Espaloia an-tzokira pasa zuten otordua. Bazkaldu ondoren, magia ikuskizunari eman zion hasiera Txispi magoak. Lehenengo bertan eta gero tabernaz taberna.



Gaueko 23:30ak aldera hasi zen Kontzertuan jende ugari batu zen. Dusminguet kataluniarren doinuak hastearekin batera, guztiak dantzan. Luxu izan da talde hau Gaztetxera ekartzea. Taldeak taula gainean erakutsi zuen zergaitik diren horren ospetsuak. Gauari amaiera Eztandakoek eman zioten. Euskal taldeen bertsio ezagun eta beraien fandango eta arin arin berriekin. Goizaldera arte iraun zuen jaiak.

Gaztetxeok urtekaria, kamisetak, metxeroak eta baita pegatinak ere kaleratu dituzte eta saltzen daude jadanik. Gaztetxeok lanean jarraitzeko asmoa azaldu dute. Mezu berriak dioten bezala, Elgetako Gazte-xeak badu bide eta norabide.



Nekazal etxe berria zabaltzear

Azken konponketak egiten ari dira Eguzkitzan, Larrabiltzear auzoan kokatuko den nekazal etxe berrian. Apirilak 7an, eguerdian, luntxa eta sagardoa probatzeko aukera izango da. Egun honetan ateak irekiko dituzte eta.

Apirilaren 7an zabalduko da Eguzkitza, Larrabilzehirrean dagoen nekazal etxea. Ez da nekazalturismoko etxe arrunta izango, nekazalturismoko etxea izateko animaliak edo baratza euki behar dira eta.

Eguzkitzan gelak egongo dira alokatzeko, "suite" erakoak dira. Mendizaleak, industrialdera etortzen diren errepresentanteak, turistak... erakartzea espero dute ugazabek. Ostatua emateaz gain, 40 lagun ingururentzako lekua duen sagardotegia zabaltzeko asmoa ere badute. Sagardotegia urte guztian zehar zabalik egongo da, nahiz eta ez duen taberna bezela funtzionatuko. Inagurazioa eguerdian izango da eta bertara joateko gonbita egin nahi diete ugazaba berriek herritarrei.

Apirilak 6an Bertso jaialdia

Lehenago afaria izango da bertsolariekin

Urtero bezala aurten ere bertso jaialdia izango da Elgetan. Apirilak 6an, gaueko 22:30etatik aurrera Espaloia Aretoan izango dugu zita bertsozaleok. Bertso jaialdian, Joxe Agirre, Xabier Zeberio, Amaia Agirre, Amets Arzallus eta Xabier Silbeira arituko dira nor baino nor. Gai jartzailera Leire Basauri elgetarra izango da.

Bertso jaialdiak 136.000pta.ko aurrekontua izango du. Udaletxeko Kultura, euskera eta

gazteria batzordetik sortutako taldeak antolatu du bai jaialdia eta baita aurretik izango den afaria ere.

Bertso saioaren aurretik, iluntzeko 20:30etan afaria izango da bertsolariekin Panaderokuan. Menua: berdura menestra, sahieskia, postrea eta kafea izango da. Afarirako txartelak saltzen daude Panaerokuan eta 2.500pta. balio dute. Txartelak hartzeko azken eguna apirilak 4an eguerdikoa 12:00etan izango da.

Udaberri ibiltaria martxan

Udaberrian zehar, bidai desberdinei buruzko diapositiba emanaldiak izango dira Gaztetxean. Afrika, pirineoak, Islandia eta Zelanda Berria bezalako parajeak ezagutzeko aukera ezinhobea beraz. Emanaldi hauek ikusi ahal izango dira Gaztetxean:

-Martxoak 30ean: "Afrika: Atlantikotik Indikora" (Imanol Ugarte).

-Apirilak 19an "Santiago Gonzalez, munduari itzulia, 17 urtetan, belauntzian eta familiarekin".

Maiatzak 18an: "Hielo y fuego, dos viajes a las Antipodas: Islandia y Nueva Zelanda" (Iñigo Krug).

-Ekainak 22an: "Pirinioak armonian" (Ramon Agirre "Marron". Emanaldia guztiak Emanaldiak Gaztetxean izango dira 21:30etatik aurrera.

Euskeraren erabileraren Udal ordenantza

Kultura, euskera eta gazteria batzordeak, euskeraren erabilerara normalizatu eta sustatzeko udal ordenantza egin du. Datoren batzordean ordenantza hau onartzea espero dute. Ordenantzaren helburua alde batetik, euskera herritarrentzako zerbitzua izateaz gain lan hizkuntza ere bihurtzea da. Udalak euskeraz egingo du, barne funtzionamenduan nahiz herritarrekin harremanetan eta baita instituzioekin ere. Ordenantza Udaletxean egongo da norbaitek ikusi edo eta erabili nahi izanez gero.

Jarri zure iragarkia

Tel.:78.90.85

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Goienaren lehen batzar nagusia bihar, hilak 31

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen lehen batzar nagusia egingo da bihar, zapatua, Euskadiko Kutxak Arrasaten duen egoitza nagusiko aretoan. Bihar, martxoak 31, urtebete beteko da Goienak eratze batzarra egin zuela.

Iaz, bi batzar egin zituen Goienak: martxoaren 31n eratze batzarra eta uztailan batzar berezia, azken hori karguak izendatu eta hainbat betebeharrak egiteko. Bihar, ostera, lehen batzar nagusi arrunta egingo da, eta horrelakotan izaten diren gaiak landuko ditu: iazko txostena eta diru kontuak, aurtengo gestio plana, bete beharrekoak, eta bakoitzak dakarrena. Elkarte sortzaileek, hau da, bailarako euskara elkarteek, lehen aldiz izango dituzte alboan bazkide laguntzaileak eta lan-bazkideak. Aurten, martxoan, bi hitzarmen sinatu ditu Goienak. Batetik, martxoaren 1ean, Goienak eta bailarako euskara elkarteek hitzarmena sinatu zuten Bergaran, herri komunikabideen produkzioa Goienaren esku uzteko. Bestetik, martxoaren



Elkarte guztiek eman zioten baiezkua Goienari. Sinaketatik aurrera herri komunikabideen produkzioa Goienak bere gain hartu du.

15ean, Goiena egitasmoari baietza eman dioten eskualdeko udalek eta Goienak beste hitzarmen bat sinatu zuten Aramaion. Bergara, Oñati eta Elgetako udalek izan ezik, beste sei udalek sinatu zuten hitzarmena. Biharko batzar nagusia 09:00etan hasiko da. Aurkezpenaren ondoren,

aurreko urteko jardueraren eta diru kontuen berri emango da bideo baten bitartez. Jarraian, galde-erantzunen tartea izango da, eta ondoren, bozketa. 10:00etan, aurtengo gestio plana aurkeztuko da eta galde-erantzunendako tartearen ostean, bozketa egingo da.

Aurkezpen ekitaldia

Batzar nagusia 11:00etan amaituko da. Ondoren, Goiena egitasmoa aurkeztuko da prentsaren aurrean, eta 12:00etan, ekitaldi berezia egingo da. Hantxe izango dira Goienako buruak, Debagoieneko alkateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jurlaritzako ordezkariak. Horiekin batera, bailarako eta bailaraz kanpoko hainbat pertsona ezagun ere, hezkuntza, kultura, enpresa, alderdi politiko eta hedabideetakoak. Ekitaldiaren ostean, lunch-a egingo da.

Matxoaren 15ean Bergara, Oñati eta Elgetako udalek izan ezik, beste sei udalek sinatu zuten hitzarmena.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

V I V O
J a n a r i
d e n d a

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Zelan ikusten dozu Elgeta turismo aldetik? zer pentsatzen jatzu nekazalturismuan ideia?



Marian Pordel
Langabetua (30 urte)

Goienkarixan irakurri dot beste nekazalturismo bat be zabaldu bihar debela eta ideia ona pentsatzen jata. Elgeta oso leku onian dago ze herri pillo bat dakaz inguruan, baiña normalian jentia Nafarrua aldeko nekazalturismuetara jauten da...

Uste dot turismo aldetik indarra hartzeko ez dagola zertan herri ezaguna izan bihar. Elgeta moduko herri batek gauza ezberdiñak egitten baldin badittu turismo aldetik asko irabaziko dau.

Jñaki Gorostiza
Bihargiña (41 urte)



M^o Jesus Arantxabal
Bihargiña (38 urte)

Inguruko herri asko zabaldu dira turismo mundura eta uste dot Elgetak be egiñ ahalko dabela. Jente asko etortzen da astebukaeratan egun pasa eta uste dot Elgeta oso erakargarria dala.



Kontxi Gorrotxategi
Bihargiña (51 urte)

Uste dot nekazalturismo moduko lekuek publizidade asko emongo dotsala herri-xai eta horrekin jente asko etorriko dala. Neretzako arazo bat bakarrik dago, hemen egitten daban eguraldixa, eta hori oso inportantia da.


Nik uste dot Elgeta moduko herri txiki batentzat interesgarria dala nekazalturismo bat ipintzia. Horrek kanpotarrak erakarriko dittu eta era berian herrixai bizitasun gehixau emongo dotsa.

Eñaut Arantzetza
Bihargiña (23 urte)



Neretako nekazalturismo mota desberdiñak dare eta etxe bat logelak jarritta neretako ez da nekazalturismo bat. Bestela herrixandako gauza oso politta izan bihar da.

Bizente Montiel
Bihargiña (44 urte)



Kartetan jokatzeko giro egokia

W-6

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

Ezkontzen gehigarria

...eta kitto!, drogeteniturri, eta goibekokale aldizkarien

EZKONTZEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibar, Elgeta eta Ermuko aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun *Ezkontzen Gehigarria*. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia eta Soraluzen banatuko dugu ale berezi hau.

10.000 ale kaleratuko dira, 28.000 irakurle ingururendako.

5. zenbakia.

2001eko udaberriko
gehigarria

PUBLIZTATEA:
Belen Ulazia.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Koldo Mitxelena Zumaran.

TESTUAK:
Silbia Hernandez.

TIRADA:
10.000 ale.

Tel. 943 20 67 76
Faxa. 943 20 67 76



FOTO-VIDEO ZAPPING

Valenciaga

EIBAR Zuloagatarren 1
Tel. 943 20 22 33

Senargaiak
eta ezkontzako
gonbidatuak
janzteko
prestatuta
gaude

Gonbidatuak ere dotore

Emaztegaiaren soinekoa da, duda barik, jendearen arreta gehien erakartzen duen jantzia. Hala ere, gonbidatuen artean gero eta gehiago zaintzen dira jantziak.

Emakumezkoen kasuan, indar haundiarekin sartu da 'bustier' delakoa, pieza birekin osatutako jantzia, alegia; enkajeak ere modan daude. Edozein modutan ere, soinekoa edo gona luzea izatea gomendatzen dute adituek; berdin dio ezkontza arratsaldean edo goizean den, jantzi luzea aproposena dela diote.

Oihaleetan, berriz, geroz eta eskaintza zabalagoa dago: crepe, seta, organza, gasak, estanpatuak eta artilea ere asko saltzen dira hola-ko egun berezietarako.

Beste linea batean, oihal metalizatuak daude, dir-dir egiten duten oihalak, ehun teknologikoagoak, flekoak... Udaberri honetan sarri erabiliko dira asko landutako blusak, guipur eta bordatuekin apaindutako jantziak. Horrez gain, batera doazen soineko eta berokiak eta hiru piezetako konjuntioak asko ikusiko dira.

Koloreetan betikoak ditugu: malba, zilar

kolorea, berdeak, fuksiak, bisoiak, urdinak, granateak eta baita beltza ere.

Apaintzeko, berriz, txala gero eta gehiago ikusten da. Lehen zapatak eta poltsa konjuntatzen bazituzten ere, gaur egun gehiago zaintzen da poltsa eta txala koordinatzea. Gainera, txala modu askotan jantzi daiteke, eramaten duenaren estiloaren arabera.

Gizonezkoak ere

Oraindik ere trajea nagusi izaten jarraitzen du. Koloreak, jakina, ilunak: gris ilunak, gris marengo eta, tradizionalagoak direnentsat, urdin iluna. Horiekin batera, gris argiak ere gero eta gehiago ikusten dira.

Praka pinzadunak dira egokienak, pinza bikoitzekoak etabaita bakarrekokoak ere. Txalekoan kolore argiagoak erabiltzen dira, kontrastearen bila. Hala ere, marrazkiak tonu berean joatea askoz dotoreagoa da.

Horrelako egun batean, gainera, ezin kor-bata ahaztu. Honetan ere kolore argiak dira nagusi: pastelak, arrosa eta urdin argia, gris argiarekin nahastuta.



FOTO-VIDEO ZAPPING



Etoppi zaitez!



Senargai, aitabitxi
eta gonbidatuendako trajeak

- ✂ Trajeak neurriera egiteko aukera eskaintzen dugu
- ✂ Zure gorputz eta estilora egokitzen dugu trajea

Salmenta: Arraqueta 3
Erakusketa: Arikilxaneko zubia 1
Tel. 943 20 74 17 - 20600 EIBAR

NASBE

KONFEKZIOAK

Gizon eta emakumeendako jantziak

Calbeton 4 (Untzaga dorrearen ostean)
☎ 943 20 12 16

RAMOS

JANTZIDENDA



1956. urtetik
gizona jantzen

ZUBIAURRE-2
943 17 01 06
48260 ERMUA (Bizkaia)

ROCA

Ezkontza egunerako
guztia zure esku!




F. Calbeton 16 (EIBAR)

943 20 80 06


Irrieta

*Ezkontza-egunean
ezin hobeto
jantzita egoten
lagunduko dizugu*



Arragueta 9
Tel. 943 12 71 06
20600 EIBAR

Zubiaurre 33
ERMUA
Tel. 943 17 01 80



Gutiérrez

JOSTUNDEGIA

Bidebarrieta 62
Tel. 943 12 70 21
20600 EIBAR

*Jantzirik
dotoreenak
zuretzako!*

DOROTI



Egun osorako lorak

Emaztegaiaren lora sortak aparteko garrantzia dauka ezkontza egunean. Berau prestatzeko orduan, loradendako arduradunak hainbat ezugarri izaten dituzte kontuan: emakumearen ilea zein kolorekoa den, altura, eramango duen soinekoa... horregatik, askotan komenigarria da alde zuzeneko soinekoaren argazkia eramatea, lora sorta horren estiloaren arabera osatzeko.

Eskaerak, berriz, hilabete eta erdi eta hamabost egun bitarteko epean egiten da, nongo lorak erabiliko diren kontuan hartuta.

Prezioa asko aldatzen da, loren arabera: 6.000 pezetatik hasi eta 20.000 pezeta arte, baina ohikoena

12.000 pezeta inguru gastatzea da.

Automobilak apaintzeko, kolorea hartzen dute kontuan: iluna bada, lora argiak erabiltzen dira, deigarritasuna biltzen. Atzeko bandejako lora zentroak modan ipini dira.

Eliza apaintzeko orduan, toki bakoitzak dekorazio ezberdina eskatzen du. Eliza modernoetan lora luzeak erabili daitezke, baina erromaniakoetan lora zentro borobilak dira aproposenak.

Argiak ere zeresan asko du lorak aukeratzeko orduan: zenbat eta ilunagoa izan, orduan eta lore argiagoak ipini beharko dira. Jatetxe batzuetan ere norberak aukeratu behar ditu.

fasprint

Inprimategia

Ezkontza Gonbidapenak
txartelak, gutunak, albaranak,
fakturak, papergintza orokorra...

Tel./Faxa: 943 20 16 13 - Ego Gain, z/g - EIBAR



**Ezkontzetarako
tartak eta
opariak
prestatzen
ditugu**



Bidebarrieta 28
Tel. 943 20 79 73

20600 EIBAR



ARRIETA

*Gizon eta
emakumeendako
erropak*

7. Etxebarria 14

943 20 69 29

Errebal 22

943 20 20 24

EIBAR






mari asun 
 Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

ARRATE
 LORADENDA



Bidebarrieta 64
 Tel. 943 20 38 32


Blanca
 LORADENDA
 Isasi 16 - EIBAR -
 Tel. 943 20 88 47



Etorri gu ezagutzera!
 **S**asoiko loreak eta landareak




Laumar
 Bidebarrieta 1
 Tel. 943 20 16 26



Izadi
 San Juan 1
 Tel. 943 20 33 29



MENAJEA - KRISTALA - OPARIAK
Jauregui
 San Agustin 4
 Tel. 943 20 16 47



Oparietarako ideak



Eraztunak, gero eta sinpleagoak

Ezkontzan oso une hunkigarria da ezkonberriek eraztunak ipintzen dituztenean. Modu sinbolikoan, bien bizitzak betirako elkartuta geratzen dira elkartruke horri esker. Sasoi batean asko apaindutako eraztunak modan egon ziren, baina gaur egun berriz ere sinpletasunaren aldeko apustua egiten dute ezkongaiak.

Kontuan hartu behar da eraztuna bizitza guztian eramateko dela eta, horregatik, ahalik eta sinpleena izatea komeni da, denborarekin ez aspertzeko. Marrakirik gabekoa, urre gorri edo zurian, egokiena dela diote bitxigileek.

Fabrikatzaile batzuek beste modelo batzuk atera

dituzte, platinoarekin nahastuta edo urre gorria, zuria eta arrosa nahastuta. Hala ere, estilo klasikoa nagusi da oraindik ere.

Emakumezkoen kasuan, oso modan ipini dira brilantedun eraztunak. Prezioari dogokionez, 10.000 pezetatik hasi eta 25.000 inguruan erosi daitezke ezkontzarako eraztunak. Platinoarekin apaindutakoak, berriz, 40.000 pezeta inguruan dabilta.

Denboraz ibiltzea komeni da: eraztun klasikoa egiteko 10 egun behar izaten ditu bitxigileak, gutxi gorabehera, baina Italia edo Belgikatik ekarri behar badituzte hilabete itxaron beharko da.

142 postakutxa
48260 Ermua



☎ 943 17 41 47

Asociación de Comerciantes
ERMUA

Merkatari Elkarte



ARGAZKILARIA

FELIPE LOIOLA



J. Gisasola 10, behea
20600 Elbar
Tel. 943 12 72 44



Antonio Aguirresrobe

ARGAZKILARIA

Bidebarrieta 18
Tel. 943 20 13 16 • Faxa. 943 70 03 27
E-maila: a.g.c@clientes.euskaltel.es

CAPI

Bidebarrieta 5 EIBAR
Tel. 943 20 15 47



Makilajea



Txutxa eta permanentea berrileetan



Mikropigmentazioa: expainak, eye-liner, bekainak...



- ◆ Aurpegi tratamenduak
- ◆ Gorputz tratamenduak
- ◆ Masajeak



Solariuma

PRESTATU ZAITEZ ZURE EZKONTZARAKO

Hodei
ESTETIKA

Zure ESTETIKA
ZENTROAn DAY-SPA:
ERLAJAZIORAKO
TXOKOrik aproposena



San Juan 11
943 70 18 28



ERA GUZTIETAKO TRATAMENTUAK:

reafirmantea, remodelantea,
hanka nekatuendakoa,
gorputz guztirako hidratantea,
estresari eta toxikoei aurre egitekoa,
sasoi betean egoteko remineralizazioa

dirdac

Toribio Etxebarria 21, behea 943 20 64 07

K **kareaga**

Bidebarrieta 10
Tel 943 20 80 45 EIBAR

Marrodan
BITXITEGIA

Toribio Etxebarria 24
Tel. 943 20 73 04
20600 EIBAR

Loiola auzoa 24 AZPEITIA Tel. 943 81 56 08

KIRURI
JATETXEA

Mendarozabal, s/n 20.850 MENDARO

LUZAIDE
JATETXEA

Tel.: 943 75 51 44 - 943 75 61 66

- BATAIOAK
- JAUNARTZEAK
- DESPEDIDAK
- EMPRESA BAZKARIAK

TELF.: 943 75 51 44
943 75 61 66

KANTABRIA

*Ezkontzak,
banketeak...*

ARRATE
Tel. 943 12 12 62

Kolore guztietako bidaiak

Ezkonberriek geroz eta gehiago aukerazten dituzte urrutiko herrialdeak, eta lasaitasunarekin batera abentura puntu bat ere bilatzen dute. Oso modan ipini den lekuetako bat Zanzibar da.

Espeziez ezaguna egin zuten uharte horrek gogora ekartzen dizkigu beste sasoi batzuk: esklabuekin trafikatzaren ziren urteak, marfila saltzen zuten merkatariak, Afrikaren bihotzeraino abiatzen ziren espedizioak.

Zanzibar Indiako Ozeanoan dagoen artxipiela da; Afrikako kontinentetik 40 kilometrora dago eta 85 kilometro luze eta 22 kilometro zabal ditu. Hondartzak marfila bezain zuriak dira

eta itsasoa benetan aberatsa da, landare eta animalietan. Gusto guztietarako aukerak eskaintzen ditu: Afrikan barren safaria egin edo lasai asko hondartzan eguzkia hartu daiteke; norberaren esku dago aukera. Azken urteotan eskaria horrenbeste igo denez, gaur egun haraino hegaldi zuzenak egiten dira.

Santo Domingo, Jamaika, Cancun, Costa Rica, Mexiko eta Kubak ere gero eta bikote gehiago erakartzen dute. Europak, berriz, ez du horrenbesteko arrakastarik, baina badago Paris, Erroma, London, Munich eta beste hiri batzuk aukeratzentzenak. Azken batean, edozein toki da ona maite den pertsonarekin egun batzuk lasai pasatzeko.

Ezkontza bidaiak:

Informazioa eta aurrekontuak

KONPROMEZURIK GABE

- Egonaldiak
- Zirkuitoak
- Itsas bidaiak
- Uhartetako exotikoak
- Bidaia konbinatuak...

Gure esperientzia zure zerbitzura jartzen dugu

Aholkuak ematen espezialistak gara

VIAJES EROSKI
BIDAIAK

Toribio Etxebarria 3


943 20 15 69

Faxa. 943 20 40 67



marsans bidaiak

- Eztei bidaiendako deskontuak eta opari bereziak
- Ordaintzeko erreztasunak
- Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe



San Agustin 5
© 943 20 76 88

Barcelo Bidaiak-ekin zuen

Ezkontza Bidaiak

unerik hunkigarrienak gogoratuko dituzue

...gainera, opari ezinhobeak aukeratu ditzakezue



Barceló  **Bidaiak**
San Juan 16 - ac 943 20 27 86

Leire Ibaibarriaga

Ikaslia (23 urte)

Donostian egon ziñan denboran zertan ibili ziñan?

Ikasten.

Bizitzeko lekua: Hirixala herrixa? Zergaittik?
Herrixa, baketsua dala-ko.

Gustoko lanen bat badakazu? Bai, gustora egindako edozein.

Zeinekin botako ziñuke afari eder bat?

Konpania onakin.

Koloniaik botatzen dozu?

Zein? Bai, olixua: White Musk.

Irakurri dozun azkenengo liburua? The Man from St. Petersburg.

Parrandarako leku apropos bat? Ohia.

Bizitzan euki dozun berririk onena?

Kotxeko kar-
neta aprobau
nebana.

Detallistia zara? Batzutan.

Ule motza ala luzia? Berdin

dosta.

Zelan ikusten dozu zure burua hemendik 30 urtera? Ez naiz ikusten.

**Zer miresten dozu mutil baten-
gan? Gauza bakoitza eta danak batera.**

Hondartzara juateko modurik egokixena? Ortotzik.

Elgetako parejaik polittena? Juan Ramon eta Aintzane.

Txikittako oroitzapenik badakazu? Bai, karnabaletan ni holandesaz eta nere anaia otsoz jantzi giñanekua.

Zailla zara? Bai.

Ze kolorekin tintauko ziñuke mutil baten burua? Urdin illuna.

Oroitzapen onak ekartzen doztzun abesti bat? Momentu onian entzundakuak.

Dibertitzeko? Konpañia eta umore ona.

**Zelan ikusten dozu zure etorki-
zuna? Bista txarra dakat urriñera.**

Euskal talde gustokuena? Pantxoa eta Pello.

**Zein da zure ametsetako bidai-
a? Egiptora juatia.**

**Ze hiru gauza eruango ziñukez? Alpargatak, dirua eta hiztegi elek-
troniko bat.**


Zer botatzen dozu faltan zure eguneroko bizitzan? Katua.

Zeini egingo zontzake holako entrebista bat? Herriko abadiai.




AUPA MIKEL
ZER MODUZ?

TXARTO!



ITXOIN ORAIN KORPONDUKO
DIZUT ARAZOA.



ESKERRIVASTKO



Ostidada oi! taldearen lehenengo kontzertuan jende pilla bat eta sekulako giroa

Gaztetxean eman zuten kontzertua. Ez zuten inondik ere espero horrelako harrera eta hori eskertu beharrean aurkitzen direla aitortu dute. Orain gehiago entsaiatu behar dutela diote.

Ostidada oi! izena bat-batean pentsatutako izena da. Kartelean jartzeko ordua heldu zen arte ez zuten izenik hiru Elgetarrek osaten duen taldeak. Beraiekin batera Aniotz eta Asier ere badaude taldean, Arrasatekoa da bata eta Bergarakoa bestea.

Hiru urte inguru izango dira instrumentuak hartu eta taldean entsaiatzen hasi zirela. Taldekideak osatzeko piskat txiriparekin kontatu dute, juergan

batu zitzaizen bai Asier eta bai Aniotz. Aurretik kuadrilako proiektua zen, hala ere, kuadrilakoek ez zuten gitarra jotzerik gura eta beste jende baten bila hasi behar izan genuen. Bitarte horretan Roberrek ere jo zuen gitarra, baina azkenean Arrasate Bergara eta Elgeta artean osatu da taldea.

The Clahs, Bussines, Larssort, eta orokorrean Ska inguruko taldeak dituzte gustoko Josuk eta Aritzek. Ikerrek, oste-

ra, talde berriagoak ere en-tzuten ditu, esaterako Anestesia. "Entzuten dugun musika bizi guztian entzun duguna da, etxetik entzuten dugu, anaiak influentziatuta, lagunek..."

Egiten duten musika defintzerakoan Josuk dioenez "OI musika egiten saiatu arren, nahasketa arraro batek irtetzen du. Asier esaterako Punk-rockeroa da, neri Ska musika asko gustatzen zait..." Mestizaiaren

itxura izan arren, esan daiteke kantu guztiak dutela oi ukitu hori.

Bertsioak egiten dituzte (Zakarrak, Cica-triz, Rip...) baina beraien kantuak ere badituzte. Elgetako Gaztetxeko kontzertuan bereienak diren lau kanta egin zituzten. Kantu hauen hitzak beraienak dira eta ea liburuetatik edo enkarguz letrak egin dituzten galdetzerakoan esan digute hori egitea tranpa litzatekeela. "Gure taldean

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
A
S
T

San Roke 6
tel: 768168.

nahiko letra onak egiten ditugula uste dugu. Taldeko Asier lanean dagoeanean inspiratzen da eta Aniotzek ere egoki egiten ditu letrok. Enkargatzea tranpa egitea litzateke, horrek ez du balio”.

Bizitzari kantatzen diote “kaleko mobidari, juergari... kantua arazoei aurre egiteko da ekidatzeko baino, gizarte-ari aurre egiteko-edo kantatzen dugu, hortik dator esaterako *puta sociedad* kanta edo politikoen kontra egindakoak”

Musikaren panorama Euskal Herria ez omen da txarra. “Gure herrian ere bada talde gazteago bat temak egiten hari dena. Gure inguruan ere talde ugari sor-

Eskerrak eman nahi dizkiegu Gaztetxean egon ziren lagun guztiei eta bereziki Enekorri.

Oso ondo portatu ziren gurekin denak.

Afaria ere mundiala.


tzen ari dira. Gaur egun erraztasun handiagoa dago instrumentuak eta lokalak konpartitzeko... Guk hasireko urtean nahiko prekarioan geunden eta zailagoa egiten zen musika egitea. Bestalde, Euskal Herrian badira gustoko ditugun beste talde batzuk, esaterako Dut, Anestesia, La Polla, Iskanbilla, Hasi berriak diren RIP taldea...

Lehenengo kontzertua Gaztetxean izan zuten eta oso oroitzapen ona gordetzen dute: Izugarria izan zen! Espero genuen lagun batzuk eta ezagun batzuk etortzea, baina horrenbeste jende... Izugarria izan zen zegoen giroa eta eskertzea da han egon ziren deneri. Gure gertukoak diren lagunak ere gainean

izan genituen eta hori ez da erraz ahazten.

Orain tema berriak egiten dihartute Josuk dioenez “kanta berriak nahi ditugu sartu kontzertuetan eta bertsioak gero eta gutxiago jo” Ikerrek, berriz, ez du baztertzen taula handietan jotzea. Jam moduko areto batean, Bergarako jaietan Bidebarrietan... ondo legoke”.

Grabatzea ere pasa zaie burutik, hala ere hankak lurrean dituzte eta kostatzen den diru guztaz gain oraindik “ez gaude preparamatuak, errodatu beharra daukagu zerbait dexentea ateratzeko. Ordu asko daukagu sartzeko eta are gehiago ikasteko. Momentuz jo



Josu Azkarate, Iker Valle eta Aritz Macarro beren lehenengo kontzertuan. Sekula ahazten ez diren kontzertu horietako bat izan omen zen beraientzako. Ia beste pila bat ere izanten diren.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Estampaciones Intxortarendako beste Eibarko saskibaloitxapelketa bat

Lehenengo aldiz aurten ez dute partidu bakarria galdu

Jadanik ez dakigu zenbargarrena izango den baina gutxienez seigarren txapelketa da elgetarrek irabazten dutena. Liga erregularra amaitu da eta jokatu dituzten 14 partiduetan errenkadan irabazi dituzte. Bigarren hiru garaipenetako aldea ateradiete. Gehienak erraz samar. Ozta-ozta, azken

unean irabazitakoak gutxi izan dira. Aurtengoa izan da Martin Villak eta Juan Mari Azkaratek babesten duten taldeak errazen irabazi duen aldia. Esan ere, aurtengo denboraldian, partiduetara joateko orduan ez dituztela izan beste urteetan bost pertsona batzeko izan dituzten arazoak. Bai

jendea motibatuagoa egon delako edo urteroko futbitoko txapelketa aurten beranduago hasten delako. Liga amaitu arren oraindik kopa geratzen da jokatzeko. Erdifinalerako sailkatuak daude zuzenean. Erdifinalak bi partidatara jokatu dituzte. Lehenengo partidua irabazi egin zuten pasa

den domekan. Lehenengo zatian 15 puntuz irabazten joan arren azkenean hiruko aldeaz irabazi zuten. Hurrengo partidua talde beraren aurka jokatuko dute. Kanporaketa aurrera ateratzeko elgetarrek hiru puntu baino gutxiagotatik galdu beharko dute.

Xabier Arangurennek hasi du afizionatu mailako denboraldia

Villaban eman zitzaion hasiera aurtengo afizionatu mailako denboraldiari. Bertan izan zen Xabier Eibarko CDR taldearekin. Bere lehendabiziko lasterketa izan zen eta 70. postu inguruan amaitu zuen. Denboraldi gehiena Lehendakari mailako txapelketei begira egingo zuela esan zigun nahiz eta noizean behin Euskaldun mailakoekin neurtu indarrak. Oraindik mailari neurria hartzen dagoen arren, salto oso handia ez zitzaioela egin adierazi zigun. Azkarrago joaten zirela zioen, batez ere bideek goraka egiten zutenean. Lasterketa guztiak amaitu ditu eta


hori ez da seinale txarra. Camargon, Lizartzan (44) eta Gorlan (57) izan dira azken lasterketak. Txarrena, azkenengo lasterketan, Villatuertan, izan zuen erorikoa. 8. kilometroan tropelean izandako eroriko baten ondorioz Xabier lurrera erori zen. Buruan izan zuen kolpea zela eta kaskoa ere apurtu zuen. Zorionez ez du ezer hautsia, hori bai aurpegi puntua, bi belaunak urraturik eta besoak baita. Orain bere asmoa berriro bizikleta gainean ibiltzen hasi eta Eibarren apirilaren 8an korrituko den Balentziagaren omenekoan parte hartzea izango da.

Gipuzkoako XXII. hiru txirloko jardunaldia martxoaren 31n


Martxoaren 24an hasi zen Gipuzkoako hirutxirlo bolo txapelketa San Migelen. Guztira bederatzitiraldi izango dira. Elgetara astebete beranduago etorriko da. Zabaletan ere izango da tiraldi bat, baina berau maiatzaren 26an izango da. Azken tiraldia Lasturren izango da. Txapelketa urtero bezala arratsaldeko 4:30tan hasiko da. Sariak: 1goa 7000pta, 2. 5000pta, 3. 3000pta, 4. 2000pta, 5. 1000pta. 6. Uste-gabea.

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN



Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik

Ekainaren 10ean Angiozarraren ospatuko da XIV. GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN JAIA. Hori dela eta, ondorengo orrian bertako iraskasleak pasa den astebukaeran izandako ospakizunen gainean azalduetako kontakutako dizuegu.

Zapatuan Angiozarko aintzinako eta gaur egungo ikasleen, maisu-maistren erretratuak ikustekoa aukera izan zen elizpean.

Ikasle ohiak izandakoak antzezlan txiki bat ere prestatu zuten egun honetarako. Komunikabideen eta herritarren aurrean Eskola Txikien eguna aurkeztu zuten eta bertako ohitura den lez, Mikel Deunaren irudiarekin Eskola Txikien mezua lau haizetara zabaldu zuten globoz.

Angiozarko ikasle izandako batek, Oihan Vegak, sortu du beste hainbat lagunekin batera erritmo berodun abestia. Honela dio estribiloak:

**Eskola txiki-txikiak
Herri bizi-biziak**



**Eskola txiki-txikiak
Herri bizi-biziak
Guztion elkar lana(re)kin
Euskal giroan haziak.**



**Guztion elkar lanekin
Euskal giroan haziak.**

Eguna bukatzeko, Jarduneko trikitilariekin txikiteoa eta ondoren bertso afaria izan zuten I.Murua eta J.Maia bertsolariekin.

Gaur egun Gipuzkoan 27 eskola txiki daude (Elgeta, Gatzaga, Zizurkil...)

Eskolaren funtzioa adituen esanetan gizartearen beharrei erantzutea da. Honenbestez, herri txiki eta handien arteko errealitate sozioekonomiko, soziolinguistiko, zein soziologikoa oso bestelakoak dira. Beraz, herri txikietako eskola txikiak, beraien gazteak hezi behar dituzte tokian-tokiko baloreetan, ohituretan harremanetan, nortasunean... herri txikiak bizirik mantentzeko.

Elgetako edo Angiozarko haurrak beste herri haundiago batean heziz gkero zein errealitate bereganatuko lukete? Zerekin identifikatuko liriateke?

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

**Instalazioak eta
mantentze lanak**

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste
dimentsio batetara!

Tel: 768078



Pack esaten dotse dana pakete batian saltzeari: hau, bestia eta hestia dana batera. Holakuetan, alperrik gurako dozu gauza bakarra, paketian baldin badago dana eruan biharko dozu-eta. Gero eta gehixau ikusten die holakuak eta saltzen hasitta paketiarekin batera pack izena be saldu doskue, ingelesezko lazo moderno polittarekin..

Paketiari helduta, izan dien eta dien paketerik haundixenetakuak relijiñua eta politikia dira: bixetan be aukeran dagon paketeren bat hartzen badozu pakete osua hartu bihar. Teorixan behintzat. Relijiñuan, esateko, musulmana, katolikua, protestantia, budistia edo

dana dalakua danak badaki zer egin bihar daben eta zer ez, zelan bizi eta hildadakuan zer espero daben. Eskerrak, gero jende gehixenak aukeratutakotik (sarri, aukerarik bai?) pakete osua ez dabela betetzen eta bakoitzak gura dabena edo ahal dabena egi-tten dabela.

Ederra izango litzake gero supermerkaian moduan norberak gura dabena hartu eta bakoitzak bere relijiñua edo alderdixa egittia. Eta, gainera, funtzionatzia. Sinkretismo osua eta aldagarria, norberaren gustuaren arabera handik eta hemendik har-

**Egunotan izango
dittugu pakete
saltzailliak ikusi
eta entzuteko
aukeria gogaittu
arte.**

Pakertia


tutako gauzeekin: rastafarixen jakindurixian bedarra, katolikuen mezetako ardaia, eta bizi honetako gaiñontzeko gauzarik onenak; eta hil eta gero be zerutik zerura ibiltzeko aukeria: indixuen zerua kazan egitteko, vikinguen Valhala festa eta borrokaz betia edo gerra santuan hildakoa musulmanena eta abar.

Zerutik lurrera etorritta, esan dogun moduan, beste pakete haundixa politikia da, eta datozen egunotan izango dittugu pakete saltzailliak ikusi eta entzuteko aukeria gogaittu arte. Politikoen artean be paketian fijatu biharko gaz, eta hemen be ez da tamaiñua inportantiena izango, azkenian danen ahotan betiko hiru lau gai besterik ez diralako izango. Horrela, kanpaiñaren ardatza pakia eta autode-terminaziñua edo dena delakua izango die. Beste

guztia paketian etorriko da, keixak otzaratik ateratzerakuan moduan, bati heldu eta bestiak hari trabatuta.

Asko esatia bada be, alderdi gehixenak eukiko dabe paketian zerbait interesgarria. Bilau egin bihar. Gaiñera, politikian kasuan, pakete berian etortzen dira programak eta hautagaixak. Eta hori beste kontu bat da, izan be, gauza bat da programa bat erostia aurrez jakinda ez dala bete bihar eta kasu askotan aurrez agindutakoaren kontrakoa egingo debela, eta beste bat, lege-biltzarrian kasu bakoitzian agintzen dabena esandakuari amen esatiarren zeintzuk kobrau bihar daben be pakete berian hartu biharra, eta gero konturik ezin esatzia.

Enrike Gorrotxategi



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67



Erretratu: Maite Mandaluniz

Zapatuko afarixa Martintxonian

Zapatu askotan batzen zan lagun kuadrillia Martintxonian afarixa egitteko. Ale honetako argazkixan ikusi geinken moduan, afarixa eta gero berba eta berba artian kafetxua hartzeko denboria be hartzen zeben. Kafia eta gero jokuan egitten zan ohitturia jarraituaz.

Lagunak afari baten bueltan batzia oso politta izaten da., aspaldiko kontuak gogoratu, kontu barrixei heldu...Batzuk astero batzen dira, beste batzuk oso nohixian behin. Ia aurten be Goibekokaleko seigarren urteurrena ospatzeko afari bat antolatzen dogun, lagun danok alkarrekin, aspaldiko, gaurko...betiko kontuena barriketan egitteko.

Tente ezkerretik eskumara: **Alberto Perez (eibartarra), Julio Ugalde, Pedro Gorrotxategi, Miguel Elorriaga eta Txomin Zuloaga (eibartarra).**

Jarrita ezkerretik eskumara: **Juan Mari Arrate (San Roman baserrikua), Anizeto Aranzeta (martintxokua) eta Felipe Aranzeta (martintxokua).**

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156



SEEDS
Four Little

SUN S

in a bowl with
spring water
flowers

Leave the
the lift

THE REMEDY

for a special

ER JET
TO GIVE TO

of p.

TO

TO

BLUE SKINS

BLUE SKINS

EAT THE F...

a special